

1. Ideia

Dakigun moduan, Covid-19 birusak sortu duen pandemiak ondorio ekonomiko larriak ekarri ditu gure herrialdean. Beraz, geroz eta familia gehiagok zailtasun ekonomikoak dituzte eta fakturak ordaintzeko geroz eta diru gutxiago dute. Horretarako, honako asmakizun hau sortu dugu:

gure etxeetako elektrizitatearen intentsitatea kontrolatzea du helburu gailuak, argia erregulatuz ahalik eta faktura merkeenak lortzeko asmoz. Produktu honekin familiek beraien behar ekonomikoetara moldatu dezakete argiaren faktura, aldez aurretik, programatutako kontsumoaren bitartez.

Gure enpresa ArgiMaria deituko da eta hau izango da gure logoa eta leloa:



Nahi duzuna ordaintzeko aukera.